

**EGONKORTZEKO PROZESUA, DONOSTIAKO
UDALAREN DIGITALIZAZIO
KARTOGRAFIKOKO TEKNIKARI
LAGUNTZAILE BI (2) PLAZA LEHIAKETA-
OPOSIZIOAREN BIDEZ BETETZEKO.**

Honen bidez jakinarazten da aipatutako prozesuan oposizio-fasean aurreikusitako ariketa bakarra, ondoren adierazten den moduan, egingo dela:

Eguna: 2025eko apirilak, 10

Ordua: 13:00

Tokia: Kursaal Elkargunea (Zurriola hirib. 1, Donostia).

Goian zehaztutako informazioa eta aurkeztutako erreklamazioen ebazpena prozesuan onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko ebazpenean argitaratuko dira. Ebazpen hori, zazpigarren oinarrian ezarritakoaren arabera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

"Test" erako ariketa izango da. Bertan, idatziz erantzun beharko zaio 25 galderako galdera-sorta bati, bai eta erreserbako 5 galdera, 35 minututan.

Ariketa behar bezala egiteko, informazio-dokumentu hau eta honekin batera doazen bi dokumentuak argitaratzen dira.

1.- Ariketa egiteko kontuan izan behar den **JARRAIBIDE-ORRIA** argitaratzen da. Azterketa egunean izangai bakoitzak kopia bat izango du kontsultarako, baina jasotzen dituen jarraibideen garrantzia dela-eta, aurretik argitaratzea erabaki da.

2.- **ERANTZUN-ORRIAREN EREDU** bat argitaratzea erabaki da, izangaiek ariketa egiterakoan bete beharko duten modua ezagutu dezaten.

3.- Ariketa 13:00etan hasiko da, deialdian agertzen den bezala. Ateak 12:40ean irekiko dira eta izangaiek beren burua identifikatu beharko dute proba egin aurretik.

**PROCESO DE ESTABILIZACIÓN PARA LA
PROVISIÓN MEDIANTE CONCURSO-
OPOSICIÓN DE DOS (2) PLAZAS DE
TÉCNICO/A AUXILIAR DE DIGITALIZACIÓN
CARTOGRÁFICA DEL AYUNTAMIENTO DE
SAN SEBASTIÁN**

Por medio de la presente se informa que el único ejercicio previsto, en la fase de oposición en el proceso de referencia, se realizará según se indica:

Día: 10 de abril de 2025

Hora: 13:00

Lugar: Centro Kursaal (Av. Zurriola 1, San Sebastián).

La información arriba detallada, así como la resolución de las reclamaciones planteadas, se hará publica en la resolución definitiva de personas admitidas y excluidas en el proceso. Esta resolución, de conformidad con lo establecido en la base séptima, se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

El ejercicio será tipo "test" y consistirá en contestar por escrito a un cuestionario de 25 preguntas más 5 preguntas de reserva. El tiempo de realización será de 35 minutos

Para el correcto desarrollo del ejercicio resulta procedente publicar este documento informativo junto con los dos documentos que se acompañan.

1.- Se publica la **HOJA DE INSTRUCCIONES** que se debe tener en cuenta para realizar el ejercicio. El día del examen cada aspirante dispondrá de una copia para su consulta, pero debido a la importancia de las instrucciones que recoge se procede a su publicación previa.

2.- Se publica un **MODELO DE HOJA DE RESPUESTAS** para que las personas aspirantes se familiaricen con la forma en la que deberán cumplimentarla al realizar el ejercicio.

3.- El ejercicio comenzará a las 13:00 horas tal y como consta en la convocatoria. Las puertas se abrirán a las 12:40 horas y las personas aspirantes deberán identificarse previamente a la realización de la prueba.